

**ELA sindikatuak Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialen
Departamentuari lehenbailen erreakzionatzeko eskatu dio
Familia eta Adingabeen Zuzendariordeztako plantilla jasaten
ari den lan-egoera gogorra arintzeko**

Gaur, 2023ko ekainaren 28an, Segurtasun eta Osasun Batzordeak egin duen bileran, ELAk berriro adierazi du Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren (ANADP) Familia eta Adingabeen Zuzendariordeztan neurriak hartzeko premia larria dagoela.

2022ko maiatzean, Familia eta Adingabeko Langileek txosten bat egin zuten, baliabide pertsonal eta materialen faltagatik zegoen lan-gainkarga handia jasotzen zuena. Txosten gogor bat zen, ANADPeke Zuzendaritza eta Langile Batzordera bidali zena. Zena.

2022ko urrian eta azaroan, langile horiek berriro jo zuten Administrazioa, idatzi batzuen bidez informatuz COASetan ematen den ematen den saturazio egoeraz, hots, Adingabeen Arretarako eta Harrerarako Zentroetan; itxaron-zerrendak geroz eta handiagoak zirela salatzen zuten eta ez zutela espazio nahikorik, adingabeei are kalteberatasun handiagoa eragiten dieten egoerak.

ELAk Prebentzio Zerbitzuaren berehalako esku-hartzea eskatu zuen momentu hartan. Zerbitzu horrek txostena egin zuen 2023ko otsailean, eta langileek salatzen zutena berretsi zuen: lanpostu askotan osasunerako arrisku handia zegoela.

Prebentzioko ordezkariak bilerak egin dituzte Prebentzio Zerbitzuarekin eta Familia eta Adingabeen Zuzendariordeztarekin, prebentzio-neurriak berehala aplikatzeko eskatuz; izan ere, Prebentzio Planak ezartzen du arrisku handietarako 3-6 hilabetera jardun behar dela.

Urtebeteren ondoren, eta ELA sindikatuak esku hartzeko urgentziaz eskatu arren, zuzendaritzari zein Mahai Sektorialean, gaur arte lortutako erantzun bakarra isiltasuna eta prebentzio-neurriak ez aplikatzea da. Langileek lan-baldintza berberetan eta jasanezinetan jarraitzen dute, Administrazioaren jardun ezaren aurrean.

ELAk salatu nahi du ANADPen eta Gizarte Eskubideen Sailaren utzikeria eta jardun falta, langileen osasunari eragiten diolako eta larrialdiko egoeran dauden pertsonak behar bezala artatzea zailtzen duelako.

ELAk egoera salatzen jarraituko du eta beharrezko diren mobilizazioak aurrera eramango ditu premiazko diren neurriak hartzen diren arte.